



# Euskadi Irrratia

1. Arritxu Iribar Egaña
2. Joxemari Isasti Gonzalez
3. Sixto Iturriagagoitia Kalkorra
4. Eneko Sansinenea Rodriguez
5. Joxemari Apaolaza Zaldua
6. Xabier Calvillo Tejedo
7. Ramon Santxez Zabaleta
8. Xabier Murua Garin
9. Aitor Urkola Amundarain



## >eusko irratia



Azken urteotan krisiaz baliatu dira hainbat murrizketa eta hainbat erreforma inposatzeko. Neurri hauen guztien emaitza argia da: elite ekonomiko txiki batek bere irabaziak biderkatu ditu urteotan, gehiengo soziala pobretu gaituzten bitartean.

Zerbitzu publikoen kasuan (administrazioa, irakaskuntza, osasuna, zerbitzu soziokomunitarioak...) eraso hau garbiki ikusi ahal izan dugu eta era bitan pairatzen ditugu bere ondorioak: langile moduan eta erabiltzaile moduan. LABek betidanik argudiatu du zerbitzu publikoetako langileon baldintzak hobetzeak zerbitzua bera ere hobetzea dakarrela eta, hortaz, langileen ikuspegitik ez ezik, jendarte osoarentzako onura ere badela.

Honetarako, besteak beste, lan mundua guztiz desorekatu dute patronala eta Administrazioaren aldera: lan harremanak indibidualizatu eta negozioak kolektiboaren eskubidea ukatu aldebakartasuna nagusituz...

Egoera honi aurre egiteko ildo sindikal argia dauka LABek: Enpleguaren aldeko ildoak; negozioak kolektiboaren eskubidearen defentsa; eta erreforma eta dekretuei aurre egitea, soldatak, lan baldintzak eta zerbitzuak hobetzeko. Bestelako zerbitzu publikoen eredu bat dugu helburu, eta horretarako langileok antolatzea inoiz baino garrantzitsuagoa da.

Duela aste batzuk azken lau urteotako balantzea zabaldu genuen, eta horrek nahiko pista eman ditu LABek EITBn duen izaeraz, irizpidez eta jokabidez. Beraz lerro hauetan ez ditugu berriro gogoratuko, baizik eta kontatutakoa aurrerantzean ere hartzen ditugun konpromisoak betetzeko bermea dela baieztatuko.

Koherentziaz eta zintzo egin dugu beti lan, autokritika eta eztabaidari irekiak eta argi hitz egin eta jokatu izan dugu. Langile batzarrak eta sail sindikalaren bilera irekiak sustatu izan ditugu gaiak eta erronkak aztertu eta eztabaidatzeko, eta LABengana hurbildu diren langile guztiei irekiak egon gara. Komunikazio lerro ugari ere zabalik ditugu, nahi duzen langile guztioi informazioak helarazteko.

Beraz beti jokatu izan dugun bezala jarraituko dugu, eta aurkezten dizkizuegun ildoak aurrera eramateko behar diren tresna guztiak erabiltzen jarraituko dugu: Langile Batzordeak, epaitegiak, Administrazio Kontseilua, parlamentua... eta aurrekoan aipatzen genuen bezala, lorpen guztien bermea langileen mobilizazioa izan da eta izango da.

Datorren ostegunean, urtarrilak 15, beste lau urterako ordezkariak aukeratuko ditugu. Bederatzi ordezkari izango ditugu Euskadi Irratian. Zailtasun handiko hilabeteak gainditu berritan datoz oraingo bozak, eta jakitun gara urratu handiko tarte izan dena.





# LABen konpromisoak

## Euskadi Irratian

### LAN HITZARMENA

Negoiazio kolektiboaren ardatz gisa enplegua, murrizketa eta erreformak atzera botatzea eta Euskadi Irratiaren zerbitzu publikoaren izaeraren defentsa kokatzen ditugu. Zaharrituta dago orain arteko hitzarmena (kategoriaiak, ordutegiak, garapen profesionala...) Antolaketa berria egitearen aldeko da LAB, urtetan lortutakoari eutsita eta 2010etik hona izandako galera berreskuratuta (ETBko gehiengo sindikalaren eskutik dugu galdutako ehuneko 5 hura berreskuratzeko aukera).

### KONTRATAZIOA

LABek argi du hainbeste urtetan gaizki egindakoa erregularizatzeko bidea eman duela Lan Eskaintza Publikoak (LEP). Inoiz Eusko Irratian egin den LPE handiena izanagatik, ez da azkenekoa izango. Lanpostu finkoak lortzeko eta lan poltsan gelditu direnen defentsa irmoa egiten segiko dugu. Eta oraintxe Zuzendaritzarekin irekita dugun lan poltsako baldintzen negoziaketan langile elebidunek lehentasuna izan dezaten bultzatuko dugu. Gogoan izan nahi dugu, bide batez, kontratazio irregular hastapeneko hark jende askori itxi diola Eusko Irratian aritzeko bidea azken urte hauetan.

### ERREDAKZIO KONTSEILUA

Abian da, dakizuenez, eta ahalmen eta edukiz hornitzen ari da pixkanaka. Beste tresna bat du hor langileak, jardun profesionala askatasunean burutzeko. LABek babes osoa emango dio gero ere.

### IRRATI EREDUA

Administrazio Kontseilua inoiz baino gertuagoko nabari dugu. Eusko Legebiltzarreko EITBren Kontrol Batzordeaz ere gauza bera esan beharrean gaude. Behingoz elkar lanean ari gara, kalitatezko zerbitzu publikoaren defentsan. Finean, LABek ezinbesteko ikusten du aro berri honetan irrati publikoaren eredua, asmoa, zehaztea. Lantegi korapilatsu bezain erakargarria dela deritzogu eta, ez izan dudarik, hor murgilduko gara aurrerantzean ere.

Eta noski, orain arte bezala langile guzien defentsa egiten segiko dugu. Inoiz ez diogu inori laguntza ukatu, izan afiliatu ala ez. Hala izango da ondorengo urteetan ere.

hauteskunde sindikalak 2015.1.15